

SAN INAZIO JAIAK SANTA BARBARAN

Herriko aizkolariak aurten ere zein baino zein

■ Lau bikote izango dira: Paolla-Guardi, Larrabide-Mañu, Tapia-Arbitza eta Larra-Barrenetxea ■ Seina korteko lana dute txanda librean ■ 13:30etan hasiko dira.



Ezkerretik eskubira: Larra, Barrenetxea, Mañu, Arbitza, Tapia eta Larrabide.

SANTA BARBARAN aurten ere izango da aizkora festa. Iazkoak ze arrakasta izan zuen ikusita, *Morkaikok* berriz ere antolatzea erabaki du, eta aurten gainera, bikote bat gehiago aterako da.

Aizkolariek dezente ondo preparatuta egin beharreko lana dute: seina korte txanda librean. Egurrak iazkoak baino haundixeagoak eta eutsiak dira. Tartean kana erdikoak baino handiagoak ere bai.

PAOLLA-GUARDI

Paolla eta Guardik irabazi zuten iaz sei enborrak 17 minututan botata. Eta aurten

ere berak dira faborito. Besteak ere brometan ez dabilta, ordea. Mañu San Joanak ezkerreko entrenatu eta entrenatu ari da eta *Larrabide* fuerte da goela erakutsi zuen igandean. Barrenetxea-Larrak sei saiotik gora egin dituzte. Tapiarekin batera *Arbitza* aterako da eta honek izan du entrenatzeko denborarik gutxiena. Hasi-eran Tolosa Martindegikoa zen ateratzekoa, baina, azkenean joaterik ez eta *Arbitzak* beteko du bere lekua. Lehen dezente ibilia da.

Bestalde, herri bazkarirako txartelak salgai daude Kixkale eta Kitton, 2.500 ptan. □

JAI EGITARAUA

10:00etan: Diana
12:00etan: Indiori omenaldia.
12:30etan: Meza ermitan.
13:15etan: Atarrabiyo eta Indiori omenaldia
13:30etan: Euskal jaialdia
Trikitilariak: Leire eta Itsaso
Bertsolariak: *Aterpe, Garin, Míner, Zerain* eta E. Agirre.
Aizkolaritxapelketa: Barrenetxea-Larrañaga; Mañuel Arozena-Urolain *Larrabide*; Artano *Arbitza*-Tapia eta Paolla-Guardi.
14:30etan: Herri bazkaria.
Ondoren toka txapelketa
17:00etan: Erromeria.

ARRAUNA

Hernani-Ubis onenekin bihar, Pasaiaiko banderan

■ Atzo hernaniarrek seigarren egin zuten Orion, Euskadiko *Esprin* txapelketan.



Hernaniarrek egurrean, patrioiaren aginduetara.

ZORTZI traineruk jokatu dute Pasaiaiko ikurrina San Inazio egunean: Koxtape (Ligan aurrea dijoa), Illunbe, Donibaneko, Trintxerpe, Ur-Kirolak, Santoña, Ur-Joko eta Hernani-Ubis. Estropada arratsaldean jokatu da.

ESPRIN TXAPELKETA
Eusdadiko *Esprin* Txapelketa

jokatu zen atzo Orion eta hernaniarrek arranke ona erakutsi dute: 12 trainerutatik seigarren sailkatu ziren, semifinalerara sartuta.

Hamabietatik azkarrena Zumaia-Getari trainerua izan zen; bigarren oriotarrak gelditu ziren; hirugarren, Trintxerpe; laugarren Ondarroa eta seigarren Hernani-Ubis. □

GOBERNU BATZORDEA

Zenbait herri eta baserri bide berritzeko subasta egitea aztertuko dute

■ Datorren asteazkenean egingo da Gobernu Batzordea, eguerdiko 13:30etan.

ZAZPI puntu izango dituzte aztertzeko datorren asteazkeneko Gobernu Batzordean. Aurreko bilerako akta irakurri eta onartuta, Antziolan espalo eta elkarguneak egiteko subasta egitea aztertuko dute. *Nere Borda* eraikinean bizitzeko eskaera baimentzea ikusiko dute, gero. Atzieta 2ko etxean dauden errotuluak legeztatze eskaera eztabai-

datuko dute ondoren.

BIDEAK BERRITZEN

Bosgarren puntua herri eta baserri bideak berritzeko subasta onartzeko da. Seigarrena M. L. Arcelusek jarritako errekurtsorearen ondorioz epaiaren berri ematea, eta galdera eta eskarien txandarekin bukatuko dute Gobernu Batzordea. □

San Inazio egunean
jaia Santa Barbaran.
Zorionak eta
Ondo pasa!



**SANTA BARBARA
JATETXEA**

Santa Barbara, 2 Tel. 943. 331 387 - 20120 HERNANI

ELKERRO
FRUTAK

Bertako produktuak
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:

☎ 943 33 32 75

Antziola 1, HERNANI

Eguzki



zure
oparia!

Ez nekatu bila,
hemen **DENETARIK** daukagu.

Obrak direla eta, sarrera ondoko portaletik daukagu.

Kale nagusia 45 - Tel: 943 55 13 33 - HERNANI

Perfumeria
Ileapaindegia
Opariak
Boutique
Edertze gela
Solariuma

Igerilekuko ura depuratzeko makinaria zaharra atera eta berria sartu dute kiroldegian

■ Hezetasuna gutxitzeko makinaria ere sartu dute ■ Orain guztia montatzen ari dira ■ Obrak iraila hasierarako bukatuta egongo dira enkargatuen arabera.



Kiroldegiko azpietan makina berria montatzen.

HERNANIKO kiroldegia obretan da ekainaren 22a ezker. Dezenteko obra egiten ari dira: kiroldegi guztiko hezetasuna jeisteko instalazioa aldatzen ari dira batetik, eta bestetik igerilekuko ura depuratzeko makina berriak jartzen.

MAKINA BERRIAK
Makinaria berri guztia sartu dute kiroldegian dagoeneko, lehengo zaharrak erretiratu. Lehengo instalazioa hondatuta zegoen orain dela 3 urteko uholdeengatik. Orduan urak kiroldegiko azpiak eta bertako

makinak erabat hartu zituen.

MONTATZEA FALTA

Obrak bukatzeko falta zaiena makinak montatu eta instalazioa bukatzea da. Iraila hasierarako lanak bukatua egongo omen dira. □

PLATER TIRAKETA -TXANTXANGORRI ELKARTEA-

J. Jose Olano, Santiago Garmendia, Lazaro Oiarbide eta Manuel Martinez irabazle, Santa Barbaran larunbatean

'MINIFOSO' modalitateko tiro txapelketa jokatu zen larunbatean Santa Barbaran, Txantxangorri elkarteak antolatuta. 63 parte hartzaile izan ziren lau kategoriatan.

SARITUAK
1-2. kategorian: 1) J. Jose Olano, 2) Santiago Soroa, 3) Xabier Amiano. 3. kategorian: 1) Santiago Garmendia, 2) Norberto Zabaleta, 3) Paki Rodri-

guez. 4. kategorian: 1) Lazaro Oiarbide, 2) Jose Manuel Zaldua 3) Pedro Castel Ruiz. **Hasi berrien kategorian:** 1) Manuel Martinez, 2) Oskar Redondo, 3) Antonio Antequera. □

JASOTA BEZALA

Jose Perez, UGTko militante hernaniarraren aurka, bart arratsean egin den atentatuaren aurrean EA-EAJ Udaltaldeak ondoko iritzia kalera-tu nahi du:

1. Bistan da, itsuarena egin nahi ez duenarentzat behintzat, Jose Perez hernaniarra persekuzio latza eta setatia sufritzen ari dela azken bolada

honetan.

2. Herriko alderdi eta erakundeoi, persekuzio hori irimotasunez gaitzetsi eta salatzaz aparte, Jose Perez sozialistaren eta, oro har, herriko jendearen seguritateaz arduratzea dagokigu. Berebiziko arduraren jabe da Hernaniko EH-Batasuna. Ezin da talde politikoa hau berriz ere sor eta gor gelditu horrenbesteko

injustiziaren aurrean. Ezin geldi liteke, honenbesteko gertakari basatiaren aurrean, Alkate anderea itsutasun eta isiltasunean, ezer egin gabe.

3. Azkenik, EA-EAJ taldearen izenean gure alkartasunik sendo eta beroena eskeini nahi diogu Jose Perez eta bere etxekoei.

Hernaniko EA-EAJ

MOLOTOFF IRRATIA

'Hamaiketoff' goizeko magazina berriro hasiko da abuztuan

■ Oporren bueltan gaur ekingo diote ■ Iraila bukaera arte udako programazioak jarraituko du.



Molotoff Irratian, musika aparatuak nola erabili azaltzen.

MOLOTOFF Irratia (FM 99.2) udako programazioarekin da ekaina bukatu ezker. Urtean zehar baino programa gutxiagorekin, baina, eguneroko emisioari eusten dio.

'HAMAIKETOFF'A BERRIRO

Diapasoia programa izan da

uztaila guztian antenan, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Abuztutik aurrera, ordea, *Hamaiketoffa* izango da berriro ere, esatariek nahikoa opor egin omen dute-eta. Goizetik eguerdira arteko Magazin honetan eguneroko notiziak, elkarrizketak, txutxumutxuak eta bestelakoak izaten dira. □

HERIOTZAK

Karmen Goñi Vitoria

Larunbatean hil zen 78 urte zituela

Hileta elizkizunak gaur, astelehena, 18:00etan Ereñotzuko San Antonio parrokan.

Bixente Ayerza Orbegozo

Igandean hil zen 78 urte zituela

Hileta elizkizunak gaur, astelehena, 19:00etan Juan Bataiatzailea parrokan.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

► Taxiak:
943 550093
► Udaltzaingoa:
943 333288
► DYA:
943 464622
► Anbulatorioa:
943 557750
► Jokalari anonimoak
943 331103

FARMAZIAK

► Egunez: Correa
Antziola 44
☎ 943 551933
► Gaez: Gil
Lasarte - Nagusia 24
☎ 943 361529
► ASTEARTEA
► Egunez: Clucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793

► Gaez: Urbistondo
Lasarte-San Frantzisko 1B
☎ 943 366567

ASTEAZKENA

► Egunez: Correa
Antziola 44
☎ 943 551933

► Gaez: Acha-Orbea
Lasarte - Hipodromoa 6
☎ 943 363549

5.000 PTA URTEAN KRONIKAREN ALDE

IZAN ZAITEZ ZU ERE LAGUNTZAILE

DEITU 943-330899 TELEFONORA EDO
BETE LAGUNTZAILE BONOAK
(KIOSKOETAN BADAUDE)

IRAGARKI MERKEAK

■ Loro txiki bat galdu da Karmelo Labaka inguruan. Berdea eta horia da. Ikusi duenak deitu: 630-118852.